BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6119

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 22koa, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena, 2011-2012 ikasturterako Lanbide Heziketako irakasleentzako Etengabeko Prestakuntza Ikastaroen antolakuntza eta garapenerako emandako diru-laguntzak aldatzen dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko martxoaren 29ko Aginduaren bidez (apirilaren 20ko EHAA) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera Lanbide Heziketako Irakasleentzako Etengabeko Prestakuntza Planaren garapenerako proiektuen aurkezpenean lankide izateko, erakunde publiko eta pribatuentzako dei egin zen.

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen 2011ko, uztailaren 20ko Ebazpenaren bidez, ikastaro horien antolakuntza eta garapenerako diru-laguntza batzuk ematen ziren. Uztailaren 20ko Ebazpen horren bigarren artikuluan xedatuta dagoenez, jardueraren batean onartutako irakasle-kopurua deialdi bakoitzerako eskainitako postu kopurua baino txikiagoa bada, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak luzatu edo indargabetu ahal izango du jarduera. Jardueraren bat indargabetzen bada, horren ondorioz sortutako gastuak ordaindu ahal izango dira, behar bezala justifikatuta. Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen 2011ko uztailaren 20ko Ebazpenaren bigarren artikuluan esaten da, halaber, indargabetu ahal izango direla eskakizun nahikorik ez duten jarduerak.

Ondoren, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariaren 20011ko urriaren 5eko (behin behinekoa) eta 20011ko urriaren 21ko (behin betikoa) Ebazpenen bidez ebazten zen diru-laguntzak jasotako ikastaroei buruz. Horrela, 2011ko uztailaren 20ko Ebazpenaren bigarren artikuluaren arabera, eskatutako gutxieneko ikasle-kopurua ez zeukaten ikastaroak baliogabetzen ziren.

Horregatik guztiagatik, aipatutako arauen arabera eta aplikazio orokorreko gainerako arauen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Lanbide Heziketako irakasleentzako Etengabeko Prestakuntza Ikastaroen antolakuntza eta garapenerako diru-laguntzak (2011-2012 ikasturtea) ematen zituen 2011ko uztailaren 20ko Ebazpena aldatzea, I. eranskinean agertzen diren elkarteei eta hor agertzen diren kopuruetan emandako diru-laguntza gutxituz.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 22a.

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea,
JOSÉ CARLOS CRESPO VELASCO.

I. ERANSKINA

Erakundea	Hasierako Dirulaguntza euroak (uztailaren 20ko Ebazpena)	Amaierako Dirulaguntza (azaroaren 22ko Ebazpena)	Gutxipena euroak
Ikaslan Gipuzkoa	32.737,00	19.333,00	13.404,00
San Jose de Calasanz ikastetxea	7.258,00	6.124,00	1.134,00
CEBANC	9.073,00	4.991,00	4.082,00
Fundación formación Técnica en Máquina Herramienta	19.223,00	18.209,00	1.014,00
Lea-Artibai Ikastetxea	8.085,00	3.875,00	4.210,00
Udako Euskal Unibertsitatea	1.890,00	0,00	1.890,00
GUZTIRA	78.266,00	52.532,00	25.734,00